



Herri-lurretako larreen aprobetxamenduaren enkante publikoa

Mañeruko Udalak, ikusirik ez dela auzokideen zuzeneko aprobetxamendurako eskabiderik aurkeztu, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 143. artikuluan eta ekainaren 2ko 280/1990 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Toki Entitateen Ondasunei buruzko Erregelamenduaren 156. artikuluan xedatutakoari jarraituz, honako herri-lurretako aprobetxamenduaren enkantea egingen du:

Xedea: larreetako belarrak

A.- Ipar aldeko bazkalekua (Bideko autobiatik aurrera): 981 euro urtean.

B.-Herriko bazkalekua edo erdialdea: 1112 euro urtean.

C.- Soto eta Salbaceako bazkalekuak edo hegoaldea: 2.259,70 euro urtean.

Esleitzeko modua: enkante publikoa, plegu itxiaren bidez.

Esleipen epea: hamar urte, behin betiko esleipena egiten denetik.

Baldintzen-agiria: interesdunen eskura dago Mañeruko Udalaren bulegoan (Foruen plaza, 1).

Eskaintzak aurkezteko epea: 15 egun natural, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita. Azaroaren 13tik 27ko 13.00etara. Gutun-azalak azaroaren 28an irekiko dira, 13:00etan, Mañeruko udaletxean.

Mañerun, 2024ko azaroaren 13an.–Alkatea, Itziar Martínez Arbeloa.